

egunekoa

Javier Aisa

(Nafarroako IPESeko Nazioarteko Saileko kidea)

Israel: adostasuna bukatu eta hauteskundeak aurreratu

Ustekabean, estatu hebrearra hauteskunde kanpainan sartu da, Sharon lehen ministroak, bost ministro laboristak Gobernutik atara ondoren izandako krisia ixteko, Knesset desegin eta gero.

Hasieran, bazirudien Ariel Sharonek 2003ko urria arte gobernatzeko asmoa zuela, orduantxe baitziren egitekoak legebiltzarrerako hauteskundeak; bazirudien ez zituela aurreratuko bozak, eta gobernatzen segituko zuela Israelgo parlamentuko 120 aulkietatik 55eko gutxiengoarekin. Baina, horrela segituz gero, Sharonen gobernu alderdi erlijio-soen mende egongo zen. Alderdi horien babesa lortuko bazuen, Sharonek bi eskakizun bete beharko zituen: alde bate-tik, alderdion talmud eskolen sarerako (*yeshivot*) dirua ematen segitu beharko zuen, eta, bestetik, judaizazio ezinago kontserbadore militantean jarduten utzi beharko zien, judaismo erreformatzailea eta laizismoa bazter utzirik. Sharonek nahiago du alderdi horiek gertu eduki, baina badaki israeldarren %60 baino gehiago, erlijio tradizioak ahaztu gabe ere, ez direla intrantsigentzia erlijiosoa-ren oso aldeko. Sharonen aliantza, be-raz, taktikoa da.

Itxurak gorabehera, Ariel Sharonek ez du nahi Libermanen (errusiar jatorriko-en Israel Beitano alderdiko burua) eskuin muturraren tesiek kateatu dezaten, Libermanen proposamenak bereak baino gogorragoak baitira Palestinako auziari dagokionez: Arafat erbesterratu edo hiltzea; palestinarrei inolako estatutik ez onartzea, ezta eskumenik txikienak emanda ere; eta, pausoz pauso, palestinarrak Jordaniara edo beste herrialde arabiar batzuetara kanporatzea —*transfert* deritzote horri—.

Azkenean, urtarilaren bukaeran izan-

go dira hauteskundeak, Palestinan egitekoak diren bozak baino geroxeago. Horrek zenbait abantaila emango dizkio jeneral azeri zaharrari, nahiz eta Benjamin Netanyahu onartu behar izan duen gobernuan, Likud alderdi eskuindarrean duen aurkaria. Liteke-ena da gobernuan elkarrekin egote hori oso urrun ez iristea, *anaia etsaituak* baitira Sharon eta Netanyahu, baina Sharonek badaki Netanyahu, gobernuan egonik zilegitasun halako bat izan arren, seguru asko ahuldu egingo dela horrelako kargu batean. Eta, batez ere, Sharonek nahiago du Netanhayu Gobernuari loturik egotea alderdiaren primarioak egin bitartean. Gaur egun, Netanyahu harrera hobe da herritarren artean, baina Sharonek ondo kontrolaturik dauzka oraindik ere burokrazia eta Likudeko aparatua: inkesten emaitzak Sharonen aldekoak dira oraingoz: %44 Sharonen aldeko dira, eta %38 lehen ministro ohiaren aldeko. Beraz, kontua ez da Netanyahu denbora ematea gora egin dezan. Gainera, hauteskundeak zenbat eta lehenago egin, orduan eta alde handiagoa kenduko die Likudek laboristei. Hain zuzen, zatikaturik dabilta laboristak, eta indarberritu behar gorria dute, aurreko gobernuan modu patetikoan aritu eta gero: gobernuan zeudela, berezko izaerarik gabe eta Likudetik bereizi ezinik ibili ziren palestinarren auzian; horrek galbidean jarri du Alderdi Laborista, eta barne joeren arteko borroka lantzaz piztu du.

Gainera, Knesset ahuldurik zegoen 1999ko maiatzean Barak laborista lehen ministro bihurtu zenetik, eta ez zuen islatzen Israelgo gizarteak eta politikak 2000. urteko irailetik —palestinaren bigarren Intifada orduan hasi zen— izandako eskuineratzea. Likuden helburua 33 aulki lortzea da —orain 19 ditu; inkeste-keste hamar baino gehixeago iragartzen dizkiete laboristei— eta, era berean, beste lehen ministro bat izendatzea, Ganberatik aparte.

ALDERDI LABORISTA

Hauteskundeetan, laboristek arrisku bat dute: berezko politikarik ez izatekoa eta beren kontraesanetan itotzekoa

tutako batasun nazionalako gobernu desegin dela eta. Itxuraz, kolonien auziak eragin du krisia: 2003ko aurrekontuan, zerga abantaila gehiago ematen zizkieten. Ben Eliezer Defentsa ministro laborista, ordea, ez zegoen ados horretan: kolonoei pribilegio sozialak murriztea nahi zuen. Hala jokaturik, Sharonen jarreratik are gehiago urrundu nahi zuen Eliezer jeneral zaharrak, gobernuan parte hartu izanak ekarri zion *garbitasun* galera kitatzearen. Israelgo barne politikaren ezaugarria dira anaien arteko borroka, bai laboristen artean eta bai Likuden. Hala, gizarte talde ahulenen arazoengatik axolagabekeriaz jokatzea leporatu dio Elizierrek Sharoni, baina, neurri batean, ondo gogoan dituelako bere alderdi barneko liskarra: laboristen hurrengo primarioetan, Haim Ramon eta Amran Mitznaren kontra lehiatu beharko du, eta haiek bera baino ezkertiaragoak dira.

Hauteskundeetan, laboristek arrisku

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

zutabea

Juan Ramon Madariaga



Gailetak

Txikitan, zapatu arratsaldeetan, osabaren etxera joaten nintzen olgetan, hango kafesne kiskalgarria edaten saiatzera, hain gustuko nituen gailleta laukidun haiek salda irakingarrian (SO4H2 bailitzan) bustita jatera edo desegitera. Mihia beti erreta ekartzen nuelarik ere, ederto dastatzen nituen gailletak eta pasabide luzeko moketa zikin hura, hanketan urratu ederrak egiteko leku ezin hobe zena, non nire lehengusu zaharrekiko sesio etengabea, betiko negargura sortzerainoko jolasaldi nekagarri eta amaigabea murgiltzen ginen. Geroago, nire ohean sarturik, mantapean leher eginda nengoela, amari galdetzen nion: «Noiz bueltatuko gara etxera?».

Orain demagun, mundu-barrenekoan, ni bezalako ume bat dagoela. Kamerun edota Angolan dagoela osabaren etxera joan den mutiko hori. Bisitatzera joan den osabaren etxean, bananak eta arroza jaten ari da Thabo Twala. Lehengusu-lehengusinekin olgetan hasi baino lehen, adi-adi entzutuen dituzte aitona zahararren ahotik irteten diren ele miragarriez gizenduriko istorio miragarriak. Banana helduaren usainak ia etxe osoa harturik duenean, garratzagoa den hats lodi batek hartuko du etxeko lasaitasuna. Begi zuri-gorridun soldadu batzuk, ostikoka errotik atera duten atea zapalduta, etxe barrura sartu, eta han zeuden guztiak kolpatzen hasi dira bortizki. Inoiz gailetak jango ez dituen umea eraman dute eurekin batera, herrestan, gibelak eguzkitara ateratzeko moduko kolpeak emanaz.

Astebete darama mintsu Thabo Twalak, kanpaleku militarreko ziega batean sarturik. Esan diote soldadu ona izan behar duela. Gauez, hontzikara batean dagoela galdetuko dio bere negarrari: «Noiz bueltatuko naiz etxera?». Hau ez da galdera bera.

Egunero sorpresa ikaragarriak gordetzen dituen telebistan ikusiriko irudiak etortzen zaizkit akordura goiko lerroak irakurtzen ditudan ba-koitzean. Fikziozkoa izan nahi duena, aspaldiko egia bilakatzen da beti. Hortaz, esan behar da Thaboren kasua ez dela inondik inora bakarretarik bat. Azken hamarkadan, gudak direla kausa, bi milioi ume hil dira, bost milioi elbarri lotu dira, hamabi milioi etxerik gabe eta beste horrenbestek traumak pairatu behar dituzte.

Askok ez dute jakingo zein zapore duten gailetek eta kafeak. «Noiz bueltatuko gara etxera?» galdetzen dute soilik.

seiko urrea

Andolin Eguzkitza



Galeusca Mallorkan

Egunokaz, Alberto Barandiaranen eskutik, badaukake hainbeste berri irakurleak aurtongo Galeuscaz. Oraingoan, Herrialde Katalanetako Idazleei zegokien antolakera eta Balear Uharteetan egitea erabaki zuten, Mallorkan hainbaten. Eta emaitza ez da edozelakoa izan, horrelako batzarrek sorrarazten duten girotik aparte, balear gobernuak kulturareta hezkuntza-kontseilariak, Damià Ponsel abian jarritako programaren berri

zehatza jaso dugulako, eta gero eta argiago ikusteko aukeran egon garelako, gaxa izanda ere, litekeena dela hizkuntza handien merkatuetan sartzeko hastea, behar diren estrategiak erabiliz gero. Eta, horixe bera azaldu zigun halako katalan eder eta goxo batez, idazlea ere den Damià Ponsel joan den larunbateko afarian.

Programa ez da berez berria, suediar estatuarena bera baita. Suediarrek, estatu sendoa eduki arren, bai eta 8 milioi hiz-

tun, badakite ondo jakin, suediar literaturgileen lanak zabalduko badira munduan zehar, lagundu beharrean daudela. Eta laguntza zuzena da: behin hautaketa-prozesua eginda (urtean argitaraturiko liburuen artean), gobernuak ekintza desberdin bi ordaintzen ditu. Bata, hiztun askoko hizkuntzetako argitaletxei laborpen luzeek osaturiko katalogo bat eskaini (prosalanen kasuan, eleberri eta halako, gutxi gorabehera, 25 bat orrialde laneko). Eta bestea, behin den delako argitaletxe atzeritarrak testua onartu eta gero, itzulpena osorik ordaindu. Bada, suediarrek egiten duten horixe bera hasi da orain egiten Balear Uharteetako Gobernuak. Eta arrakasta nabaria.

Batzarrean, Alemanian bizi den Pilar

Arnau katalan kritikariak azaldu zigun programa, eta berarekin batera Anjia Rüdiger, Lübbecke izeneko argitaletxearen Iberiako Penintsularako irakurleak, Ramon Saizarbitoriaren *Bihotz bi* deritzon eleberria alemanez argitaratu duena. Izan ere, Rüdiger andereak katalogoa Frankfurtera agertu baino lehen egiteko proposatu zuen, eta aldeztu aurretik argitaletxei katalogoa aurkeztuta, Frankfurteko azokarako hitzorduak prestatu. Baina horretarako Eusko Jaurlaritzaren laguntza behar dugu (kultura- eta industria-sailak), eta euskal argitaletxeen lan sendoa.

Katalanek, bide batez, Ramon Llull Institutua sortua dute jadanik. Noizko gure Oihenart/Axular/Euskadi Institutua horrelakoen ardura hartzeko?